

## GIZAKIA ETA SUGEA

### *Kortezubiko Francisco Arribaltzagak kontatuta 1924an*

Kortezubiko Balnearioaren etxatzean karabian sugea egon ei zen.

Gizon batek bidetik txistua jotzen zion eta sugea etortzen zitzaion eta gizakiak esnea ematen zion, eta edanda atzera suge joaten ei zen karabira.

Behin baten gizakiak posturea egin omen zuen beste batekin, txistu egin da sugea ekarri baietz. Halan txistu egin omen zuen eta etorri zitzaion sugea, baina esnerik ez zuenez, sugea, berari batu, eta hil egin zuen.



Kortezubiko balnearioa izandakoa (orain Etorkintza Fundazioak erabiltzen du). Horren atzean dagoen karobian kokatuko litzateke kondaira hau.

**Joxe Miel Barandiaran**  
Obras Completas Tomo II  
Eusko-Folklore  
Editorial La Gran Enciclopedia Vasca  
Bilbao, 1973